DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Parke eta Lorategiak
Parques y Jardines
Urdaneta, 13 | Tel. 943481060 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

EXPTE: 2022/119

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA REDACCIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA REMODELACIÓN DEL VIVERO DE PUTZUETA

1 OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es la redacción del documento "Proyecto de Ejecución para la remodelación del vivero de Putzueta" tomando como base a lo indicado en el Plan Director redactado por Fermín González Blanco.

Se adjunta el Plan Director citado como Anexo I.

2 DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A REALIZAR

El contrato conlleva la redacción de un Proyecto de Ejecución. A continuación, se describe la documentación mínima que debe incluirse en dicho documento:

2.1 MEMORIA DESCRIPTIVA

- Información relativa al/a la proyectista u otros técnicos/as redactores/as del proyecto. Cuando el proyecto se desarrolle o complete mediante proyectos parciales u otros documentos técnicos, en la memoria del proyecto se hará referencia a éstos y a su contenido, y se integrarán en el proyecto por el proyectista, bajo su coordinación, como documentos diferenciados de tal forma que no se produzca duplicidad de los mismos, ni en los honorarios a percibir por los autores de los distintos trabajos
- Antecedentes y condicionantes de partida, datos del emplazamiento, entorno físico, normativa urbanística y otras normativas, en su caso.
- Descripción general del vivero: instalaciones, zonas de cultivo, áreas libres, programa de necesidades, uso característico de los espacios y otros usos previstos, así como su relación con el entorno.
- Cumplimiento de las normas de disciplina urbanística, ordenanzas municipales, edificabilidad, funcionalidad y otras normas aplicables al objeto del contrato.
- Indicaciones, en su caso, en relación con las limitaciones de uso del vivero en su conjunto y de cada uno de sus espacios e instalaciones.

2.2 MEMORIA CONSTRUCTIVA

- Justificación de las características del suelo y parámetros a considerar para el cálculo de la parte del sistema estructural correspondiente a la cimentación.
- Establecimiento de los datos y las hipótesis de partida, el programa de necesidades, las bases de cálculo y procedimientos o métodos empleados para todo el sistema estructural, así como las características de los materiales que intervienen.
- La ampliación del invernadero contará con un proyecto de construcción propio redactado por un/ una técnico/a especialista en la materia. Dicha ampliación tendrá que contar con un sistema de control climático y de riego totalmente compatible e integrable en el sistema de control climático y de riego actualmente existente en el invernadero.
- El proyecto contendrá tantos anejos como sean necesarios para la definición y justificación de las obras (Información geotécnica, Cálculo de la estructura, Estudio de impacto ambiental, Plan de control de calidad Estudio de Seguridad y Salud o Estudio Básico, en su caso, y Estudio de Gestión de Residuos) .

  El documento de Gestión de Residuos que se redacte deberán conllevar la reutilización, reciclaje o valorización de, al menos, un 70 % de los residuos no peligrosos que puedan generarse en el desarrollo de las actuaciones a acometer.

  A este respecto, el proyecto deberá incorporar la totalidad de las previsiones normativas recogidas en la Ley 7/2022, de residuos y suelos contaminados.

10740n XVII

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

2.3 PLANOS

- El proyecto contendrá tantos planos como sean necesarios para la definición en detalle de las obras.
- Plano de situación
- Plano de emplazamiento referido al planeamiento vigente, con referencia a puntos localizables y con indicación del norte geográfico.
- Plano de urbanización complementaria (tales como, red viaria, acometidas, etc.)
- Plantas generales acotadas con indicación de escala y de usos, reflejando los elementos fijos y los de mobiliario cuando sea preciso para la comprobación de la funcionalidad de los espacios.
- Plano de cubiertas indicando pendientes, puntos de recogida de aguas, etc.
- Planos de instalaciones con la descripción gráfica y dimensional de las redes de cada instalación, plantas, secciones y detalles.
- Planos con documentación gráfica de detalles constructivos, indicando las soluciones concretas y elementos singulares: carpintería, cerrajería, etc

2.4 PLIEGO DE CONDICIONES

- Pliego de cláusulas administrativas
- Disposiciones generales
- Disposiciones facultativas
- Disposiciones económicas
- Pliego de condiciones técnicas particulares.
- Prescripciones sobre los materiales: características técnicas mínimas que deben reunir los productos, equipos y sistemas que se incorporen a las obras, así como sus condiciones de suministro, recepción y conservación, almacenamiento y manipulación, las garantías de calidad y el control de recepción que deba realizarse incluyendo el muestreo del producto, los ensayos a realizar, los criterios de aceptación y rechazo, y las acciones a adoptar y los criterios de uso, conservación y mantenimiento. Estas especificaciones se pueden hacer por referencia a pliegos generales que sean de aplicación, Documentos Reconocidos u otros que sean válidas a juicio del proyectista.
- Prescripciones en cuanto a la ejecución por unidades de obra: características técnicas de cada unidad de obra indicando su proceso de ejecución, normas de aplicación, condiciones previas que han de cumplirse antes de su realización, tolerancias admisibles, condiciones de terminación, conservación y mantenimiento, control de ejecución, ensayos y pruebas, garantías de calidad, criterios de aceptación y rechazo, criterios de medición y valoración de unidades, etc. Se precisarán las medidas para asegurar la compatibilidad entre los diferentes productos, elementos y sistemas constructivos.
- Prescripciones sobre verificaciones en las instalaciones terminadas: Se indicarán las verificaciones y pruebas de servicio que deban realizarse para comprobar las prestaciones finales de las instalaciones.

2.5 MEDICIONES Y PRESUPUESTO

- Presupuesto detallado: cuadro de precios agrupado por capítulos - Resumen por capítulos, con expresión del valor final de ejecución y contrata. Incluirá el presupuesto del control de calidad. Presupuesto del Estudio de Seguridad y Salud.

  El presupuesto deberá contener de forma desglosada los costes salariales estimados a partir del vigente Convenio Colectivo de la Construcción de Gipuzkoa (CONVENIO COLECTIVO SECTORIAL DE APLICACIÓN (convenio colectivo de la construcción y obra publica de Gipuzkoa----- BOG 22/09/2022---- (código 20000455011981)).

3 FUNCIONES Y OBLIGACIONES DE LA ADJUDICATARIA

La adjudicataria se compromete a llevar a cabo la redacción del proyecto, de acuerdo con las normas generales de buena construcción, dando cumplimiento a las obligaciones establecidas por las disposiciones legales o reglamentarias vigentes en materia profesional y de edificación o urbanización, así como las contenidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Se entiende por Autor/a del Proyecto de construcción al técnico/a competente en la materia especialmente designada en la oferta por la persona adjudicataria. Deberá organizar y desarrollar los trabajos de redacción de proyectos, debiendo asumir, entre otras, las tareas siguientes:

- Organizar la elaboración del proyecto e interpretar y poner en práctica las órdenes recibidas del Responsable del Contrato.
- Dirigir, coordinar y planificar las actividades técnicas de los distintos especialistas, de forma que durante la elaboración del proyecto se produzcan la coordinación necesaria entre ellos, evitando que el proyecto resulte un conjunto inconexo de anejos sin las necesarias interrelaciones entre ellos El Proyecto lo firmará y visará el autor/a como responsable del mismo, si bien los correspondientes anejos serán suscritos por los respectivos especialistas responsables en cada una de las materias a las que se haga referencia.
- Asistir a las reuniones de seguimiento con los/las responsables municipales mientras se redacta el proyecto, la adjudicataria debe contrastar las soluciones propuestas con el Servicio Técnico Municipal, para lo que se realizarán reuniones de seguimiento con una periodicidad semanal, o con la periodicidad que se acuerde según el avance en la definición del proyecto.
- Nombrar a un/a coordinador/a, a fin de que la represente ante el Ayuntamiento en todo lo concerniente al servicio y para asegurar una perfecta coordinación de los diferentes trabajos. Esta persona formará parte del personal técnico mínimo adscrito al contrato.
- Levantar acta de las reuniones de seguimiento, firmándose por los asistentes, y reflejando los temas más importantes y la fecha de las próximas reuniones.

4 FORMATOS DE LA DOCUMENTACIÓN A ENTREGAR

Quien resulte adjudicatario/a del presente contrato, deberá presentar en el plazo estipulado el proyecto solicitado en el registro general de la página web municipal. El soporte informático será compatible con los formatos Word, Excel, Presto, y Autocad, y se entregará una copia de la documentación completa en formato *.pdf.

Los archivos gráficos se entregarán en formato *.pdf editable (no escaneado) y en formato *.dwg, incluyendo para este último formato tanto las plantillas de impresión como las presentaciones y organización de las capas necesarias para la impresión de copias de los planos entregados.

Igualmente, se deberán presentar documentación gráfica que permita la divulgación de la obras contenidas en el proyecto. Concretamente, se deberán presentar dos infografías en modelo 3D y en formato *.jpg y *.pdf de la propuesta.

5 DOCUMENTACIÓN FACILITADA POR LA DIRECCIÓN DEL TRABAJO

Se adjunta como Anexo I ~~el~~ Plan Director del Vivero Municipal de Putzueta y se publicará en el perfil del contratante junto con la documentación de la licitación.

La referida documentación estará disponible a través de la web municipal y de la plataforma del perfil de contratante del Ayuntamiento de San Sebastián.

6 PROPIEDAD DE LOS PROYECTOS

Toda la documentación que se elabore en ejecución del presente contrato será propiedad exclusiva del Ayuntamiento de San Sebastián, quien podrá reproducirla, publicarla y divulgarla total o parcialmente en la medida que tenga conveniente, haciendo constar la autoría de la empresa adjudicataria.

De conformidad con el art. 308 de la LCSP, los contratos de servicios que tengan por objeto el desarrollo y la puesta a disposición de productos protegidos por un derecho de propiedad intelectual o industrial llevarán aparejada la cesión de este a la Administración contratante.

Por ello la adjudicataria del presente contrato cede en exclusiva todos sus derechos de explotación del referido estudio a favor del Ayuntamiento, de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de Abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual y el art. 308 de la LCSP.

En base a lo anterior, toda la documentación, incluida en el proyecto de ejecución y sus posibles modificaciones, una vez entregados, supervisados, recibidos y abonados los honorarios fijados por el Ayuntamiento se entenderán propiedad de éste, quien tendrá la facultad de modificarlos, adaptarlos o complementarlos en aquellos aspectos que considere necesarios, con el fin de dar cumplimiento a la exigencias que en cada momento puedan suscitarse.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

7 EQUIPO TÉCNICO MÍNIMO

El equipo técnico mínimo exigido para la redacción del proyecto de ejecución está conformado por las siguientes 3 personas:

- Un/a arquitecto/a o persona que posea cualificación profesional equivalente.
- Un/a ingeniero/a técnico/a de Obras Públicas o aparejador/a o arquitecto/a técnico/a o que posea cualificación profesional equivalente.
- Un/a graduado en ingeniería agrícola o forestal o que posea cualificación profesional equivalente. Deberá tener 3 años de experiencia en el diseño y construcción de invernaderos.

8 PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN Y ABONO

A los tres meses de la firma del contrato, el adjudicatario deberá presentar un borrador del documento "Proyecto de Ejecución para la remodelación del vivero de Putzueta". Una vez se emita informe favorable del documento borrador por los servicios técnicos municipales se abonará el 60 % del importe de adjudicación.

A los seis meses de la firma del contrato el adjudicatario deberá presentar un el documento final "Proyecto de Ejecución para la remodelación del vivero de Putzueta". Una vez se emita informe favorable del documento borrador por los servicios técnicos municipales se abonará el 40 % del importe de adjudicación restante.

Maite Santiago Uribecheverria

Parke eta lorategietako atalaren teknikaria

2022ko abenduaren 5

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Parke eta Lorategiak
Parques y Jardines
Urdaneta, 13 | Tel. 943481060 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

ESP: 2022/119

PUTZUETAKO MINTEGIA BIRMOLDATZEKO EXEKUZIO PROIEKTUA IDAZTEA. BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Putzuetako mintegia birmoldatzeko exekuzio proiektua idaztea, Fermin Gonzalez Blancok idatzitako Plan Zuzentzailean adierazitakoa oinarri hartuta.

Aipatutako Plan Zuzentzailea 1. Eranskina bezala atxikitzen da.

2 EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

Kontratuak exekuzio proiektu bat idatzi beharra dakar, eta proiektuak gutxien-gutxienez izan behar dituen agiriak dira:

2.1 MEMORIA DESKRIBATZAILEA

- Proiektugileari edo proiektua idatzi duten beste teknikari batzuei buruzko informazioa. Proiektua proiektu partzialen edo bestelako dokumentu tekniko batzuen bidez garatu edo osatzen bada, dokumentu horiek eta haien edukia ere aipatu behar dira proiektuaren memorian, eta proiektugileak, bere koordinaziopean, proiektuan txertatuko ditu, dokumentu bereizi gisa. Hartara, ez dira bikoiztuko, ezta lan desberdinen egileek jaso beharreko ordainsarietan ere
- Abiapuntuko aurrekariak eta baldintzatzaileak, kokalekuaren datuak, ingurune fisikoa, hirigintza-araudia eta, hala badagokio, beste araudi batzuk.
- Mintegiaren deskribapen orokorra: instalazioak, laborantzako tokiak, toki libreak, beharren programa, tokien erabilera bereizgarria eta aurreikusitako beste erabilera batzuk; eta mintegiak ingurunearekin zer lotura duen.
- Hirigintza diziplinako arauak, udal-ordenantzak, eraikigarritasuna, funtzionaltasuna eta kontratuaren xedeari aplika dakizkiokeen beste arau batzuk betetzea.
- Mintegi osoa eta haren toki eta instalazio bakoitza erabiltzeko mugei buruzko argibideak, zerbaiten mugarik bada.

2.2 ERAIKUNTZA MEMORIA

- Lurzoruaren ezaugarrien justifikazioa eta zimenduari dagokion egitura-sistema kalkulatzeko kontuan izan behar diren parametroak.
- Adieraztea abiapuntuko datuak eta hipotesiak, beharren programa, kalkulu-oinarriak, egitura-sistema osorako erabilitako prozedurak edo metodoak eta erabili behar diren materialen ezaugarriak.
- Berotegia handitzeak bere eraikuntza-proiektua izan behar du, gai horretan aditua den teknikari batek idatzia. Handitze horrek klima kontrolatzeko eta ureztatzeko sistema bat ere izan behar du, berotegian klima kontrolatzeko eta ureztatzeko den sistemarekin bat egin eta erabat uztartzeko modukoa.
- Obrak zehaztu eta justifikatzeko behar adina eranskin izan behar ditu proiektuak (informazio geoteknikoa, egituraren kalkulua, ingurumen-inpaktuaren azterketa, kalitatea kontrolatzeko plana, segurtasun eta osasun azterlana edo oinarrizko azterlana, hala badagokio, eta hondakinen kudeaketari buruzko azterlana).

Hondakinak kudeatzeko idatziko den dokumentuak berekin ekarri beharko du egin beharreko jarduketak egitekoan sor daitezkeen hondakin ez-arriskutsuen % 70, gutxienez, berrerabiltzea, birziklatzea edo balorizatzea.

Hori dela eta, proiektuak Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legeak jasotako aurreikuspen normatibo guztiak barnetatuko ditu.

2.3 PLANOAK

- Obrak xehe-xehe definitzeko behar adina plano izan behar ditu proiektuak.
- Kokapen planoa.
- Kokapen planoa, indarrean den plangintzari dagokiona, aurkitzeko moduko puntuen erreferentziak eta ipar geografikoa non den ere adierazita.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Urbanizazio plano osagarria (bide-sarea, harguneak eta abar).
- Oinplano orokor mugatuak, eskala eta erabilerak adierazita, eta elementu finkoak eta altzarienak ere jarrita, tokien funtzionaltasuna egiaztatzeko izan behar denean.
- Estalkien planoa, maldak, urak biltzeko puntuak eta abar adierazita.
- Instalazioen planoak, instalazio bakoitzaren sareen, oinplanoen, sekzioen eta xehetasunen deskribapen grafikoa eta dimentsionala ere jarrita.
- Eraikuntza xehetasunen dokumentazio grafikoa duten planoak, soluzio zehatzak eta elementu bereziak adierazita (arotzeria, sarrailagintza eta abar).

2.4 BALDINTZA AGIRIA

- Administrazio-klausulen agiria.
- Xedapen orokorrak.
- Aukerako xedapenak.
- Xedapen ekonomikoak.
- Baldintza tekniko partikularren agiria.
- Material aldetik bete beharrekoak: obretan erabili behar diren produktuek, ekipoek eta sistemek bete behar dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak; haien hornidura, harrera, kontserbazio, biltegiratze eta manipulazio baldintzak; kalitate bermeak eta egin beharreko harrera kontrola (produktuaren laginketa ere sartuta); egin beharreko saiakuntzak, onartzeko eta baztertzeko irizpideak eta adostu beharreko jarduketak, eta erabilera, kontserbazio eta mantentze irizpideak. Zehaztapen horiek egiteko, kontuan har daitezke aplikatzekoak diren baldintza agiri orokorrak, dokumentu aitortuak edo proiektugilearen iritziz baliozkoak diren beste batzuk.
- Obra unitateen exekuzioari buruzko preskripzioak: obra unitate bakoitzaren ezaugarri teknikoak, exekuzio edo gauzatze prozesua adierazita, aplikazio arauak, egin aurretik bete beharreko aurretiazko baldintzak, perdoi onargarriak; amaitzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko baldintzak; exekuzio kontrola, saiakuntzak eta probak, kalitate bermeak, onartzeko eta baztertzeko irizpideak, unitateak neurtu eta baloratzeko irizpideak, eta abar. Produktuen, elementuen eta eraikuntza sistemen arteko bateragarritasuna ziurtatzeko neurriak zehaztu beharko dira.
- Instalazioak bukatu eta gero egiaztatu behar direnak: instalazioen azken prestazioak egiaztatzeko egin behar diren egiaztapenak eta zerbitzu probak adieraziko dira.

2.5 NEURKETAK ETA AURREKONTUA

- Aurrekontu xehatua: prezioen taula, kapituluka taldekatuta, kapituluen araberako laburpena, exekuzioaren eta kontrataren azken balioa adierazita. Kalitate kontrolaren aurrekontua ere jaso beharko du. Eta Segurtasun eta Osasun Azterlanaren aurrekontua.

  Aurrekontuak banakatuta jaso beharko ditu indarrean dagoen Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektibotik aurrera zenbatetsitako soldata-kostuak (Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboa---GAO 2022/09/22---(20000455011981 kodea).)

3 ESLEIPENDUNAREN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

Esleipendunak proiektua idatziko duela agindu behar du, eraikuntza onaren arau orokorren arabera idatzi ere; arlo profesionalean eta urbanizazioarenean indarrean diren lege edo erregelamendu xedapenek jarritako betebeharrak beteko dituela, eta administrazio-klausula partikularren agirian eta haren ezaugarrien taulan jasotakoak ere beteko dituela.

Eraikuntza proiektuaren egiletzat jotzen da esleipendunak eskaintzan bereziki izendatutako teknikari eskuduna. Proiektuak idazteko lanak antolatu eta garatu beharko ditu eta zeregin hauek hartu beharko ditu bere gain:

- Proiektua egitea antolatzea eta kontratuaren arduradunak emandako aginduak interpretatu eta praktikan jartzea.
- Espezialisten jarduera teknikoak zuzendu, koordinatu eta planifikatzea, proiektua egin bitartean haien artean izan behar den koordinazioa izateko eta proiektua beren arteko loturarik gabeko eranskin multzo bat izan ez dadin. Proiektua egileak sinatu eta ikus-onetsiko du, proiektuaren arduraduna den aldetik. Eranskinak, ordea, aipatutako gai bakoitzaren ardura duten espezialistek sinatuko dituzte.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Proiektua idazten den bitartean, udal-arduradunekin egiten diren jarraipen-bileretara joatea. Esleipendunak Udal Zerbitzu Teknikoarekin kontrastatu behar ditu proposatutako konponbideak, eta, horretarako, jarraipen-bilerak egingo dira astero, edo, bestela, proiektuaren definizioan zehaztutako aurrerapenaren arabera erabakitzen den aldizkakotasunarekin.
- Koordinatzaile bat izendatzea, Udalaren aurrean adjudikaziodunaren ordezkari izan dadin zerbitzuari dagokion guztian eta lanen koordinazio egokia bermatzeko. Pertsona hori kontratuari atxikitako gutxieneko teknikarietako bat izango da.
- Jarraipen-bileren akta egitea, bertaratuek sinatuta, eta gai garrantzitsuenak eta hurrengo bileren datak jasotzea bertan.

4 ENTREGATU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOAREN FORMATUAK

Kontratu honen adjudikaziodunak ezarritako epean aurkeztu beharko du eskatutako proiektua Udalaren web-orriko erregistro orokorrean. Euskarri informatikoa bateragarria izango da Word, Excel, Presto eta Autocad formatuekin, eta dokumentazio osoaren kopia bat entregatu beharko da *.pdf. formatuan.

Fitxategi grafikoak formatu *.pdf editagarrian (eskaneatu gabe) eta *.dwg formatuan entregatu beharko dira. Azken formatu horretan, inprimaketa-txantiloiak eta entregatutako planoen kopiak inprimatzeko beharrezko geruzen aurkezpenak eta antolamendua txertatu beharko dira.

Era berean, dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da, proiektuan jasotako obren dibulgazioa egin ahal izateko. Zehazki, proposamenaren bi infografia aurkeztu beharko dira 3D ereduan eta *.jpg eta *.pdf formatuan.

5 LANAREN ZUZENDARITZAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA

Putzuetako udal mintegiaren plan zuzentzailea 1. Eranskina bezala atxikitzen da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko du lizitazioaren dokumentazioarekin batera.

Dokumentazio hori udalaren webgunean eta Donostiako Udalaren kontratatzailearen profilaren plataforman izango da, eskuratzeko moduan.

6 PROIEKTUEN JABETZA

Kontratu hau gauzatzean egingo den dokumentazioa Donostiako Udalarena besterena ez da izango. Udalak dokumentazio hori kopiatu, argitaratu eta zabaltzeko modua izango du, oso-osorik edo parte bat, egoki irizten dion neurrian, enpresa adjudikaziodunaren egiletza adierazita, betiere.

SPKLren 308. artikuluaren arabera, jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek berekin dute eskubide hori administrazio kontratatzaileari lagatzea.

Hori dela eta, kontratu honen adjudikaziodunak azterlan hori ustiatzeko dituen eskubide guztiak Udalaren esku uzten ditu esklusiboki, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta SPKLren 308. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horiek horrela, Udalak jarritako zerbitzu-sariak entregatu, gainbegiratu, jaso eta ordaindutakoan, Udalaren jabetzakotzat hartuko da dokumentazio guztia, bai exekuzio proiektuan dena, bai eta haren aldaketaren bat eginez gero, han sartutako dokumentazio guztia ere. Era berean, Udalak eskubidea izango du haiek aldatu, egokitu edo osatzeko (hala iruditzen zion alderdi guztietan), une bakoitzean sor daitezkeen eskakizunak bete ahal izateko.

7 GUTXIENEKO TALDE TEKNIKOA

Exekuzio-proiektua idazteko eskatzen den gutxieneko talde teknikoa honako 3 pertsona hauek osatuko dute:

- Arkitekto bat edo kualifikazio profesional baliokidea duena.
- Obra Publikoetako ingeniari teknikoa edo aparejadore edo arkitekto tekniko bat edo kualifikazio profesional baliokidea duena.
- Nekazaritzako edo basogintzako ingeniaritzako graduatu bat edo kualifikazio profesional baliokidea duena. Berotegiaren diseinuan eta eraikuntzan 3 urteko esperientzia izan beharko du

8 AGIRIAK AURKEZTEA ETA ORDAINTZEA

Kontratua sinatu eta hiru hilabetera, esleipendunak Putzuetako mintegia birmoldatzeko egikaritze-proiektua dokumentuaren zirriborroa aurkeztu beharko du. Udaleko zerbitzu teknikoek zirriborroaren aldeko txostena ematen dutenean, esleipenaren zenbatekoaren % 60 ordainduko da.

Kontratua sinatu eta sei hilabetera, esleipendunak Putzuetako mintegia birmoldatzeko exekuzio-proiektuaren azken dokumentua aurkeztu beharko du. Udaleko zerbitzu teknikoek zirriborroaren aldeko txostena ematen dutenean, esleipenaren gainerako zenbatekoaren % 40 ordainduko da.

Maite Santiago Uribecheverria
Parke eta lorategietako atalaren teknikaria

2022ko abenduaren 5

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica

Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.

Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,